

ANTONIO ZAVALA. Afrika'ko gerra (1858-1860). Auspoa Liburutegia, 1977. 18×10,5 zm.; 159 orrialde.

Antonio Zabalak maiz eskaintzen dizkigu bertsolarien liburu ezagugarriak Auspoa liburutegiaren bidez. Gai baten inguruzko azken bilduma "Afrika'ko gerra" deritzana dugu; eta bertsoez gainera agiri asko ematen ditu Afrikako lehenbiziko gerra hartaz. Lehenengo gerra hura 1859-1860 urteetan izan zen. Karlisten gerrate bien bitartean.

Bertso paper bilketa toki askotatik egin du A. Zabalak, baina batez ere Chicago-ko New Library-n L. L. Bonaparte-ren agirien artean gordetzen zirenetatik. Frai Jose Antonio Uriartek bialtzen zizkion Bonaparte printzeari. Uriarte praille frantziskotarrak berberak gerra honi buruz jarritako bertsoak ere argitaratzen ditu.

Historian beti iduritu zaigu ilun samarra gerra hura, bai gerra egiteko arrazoien aldetik eta bai "Tercios Vascongados" zirelako haiek parte hartzeaz ere. Gipuzkoak 1.136 mutil prestatu behar izan zituan, eta antzera Arabak eta Bizkaiak.

Gerra hura Leopoldo O'Donnell jeneralak hala nahi izan zuelako gertatu omen zen, politika alderdiak zerabilkiten nahaspila baretu eta espainiarrak abertzaletasunez berotu eta batu zitezten. Artean, Ministroen kontsejuko lehendakari eta gerrako ministro bai zen O'Donnell bera. Honegatik, Ceuta-ko gobernadorea moroak zirikatzen jarri zuen, mugak hiritik harat eramanez.

Bildu beharrezko soldadu kopurua, lehenengo borondatez joan nahi zutenei dei eginaz eta falta zirenak, kopurua bete arte, hogeitik hogetahamar urtera bitarteko gizona ezkongabeen artean zozketa eginaz, eta suertez irtetzen zirenak beren ordezkotzat bat diruz eros zitekeen.

Gerra pizteaz, Gipuzkoan erregeren korrejidore zen Manuel Somoza-k deia egin zuen, arenga itxurazko hitzaldi batean esanez: "La guerra, contra los bárbaros del Riff, tan popular en España, tiene las simpatías del mundo civilizado; y la Diputación general, en su previsión y patriotismo, no se ha considerado dispensada de acudir a vuestro ilustrado criterio en demanda de auxilios para desagraviar el orgullo nacional. De vosotros pende ahora el fallo, que tanto puede influir en las glorias y en el provenir de Guipúzcoa."

Beti bezala, handi itxurako hitz arinak ugari, herriari burua berotzeko. Baina, azken hitzak ongi irakurtzen baditugu, foruen hauzia bitarteko zegoela laster ohartuko gara; liburuko beste ageri askotan eta bertsoetan nabari den bezala:

*Obligazioz da eta
joan bear gerrara,
lege maitagarriak
gordeko badira;
Tanjerrren ipiñirik
español bandera,
denbora labur barru
etxerako gera.*

Alegia, gerrara joatea beharrezkoa zela, eta hori foruak gordetzearren.

Izan ere, Bergarako besarkada ezkerotik, foruak erdi kolokan zeuden. Egileak ongi dion bezala, ikus, adibidez, Pablo Gorosabelek zer dion, bere "Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa" liburuan, "El estado de la cuestión foral" deritzan atalean.

Horregatik, hemengo Diputazioak, beste edozeinek hainbat lagundu nahi zuten gerra hartan; eta euskal probintziak beste guziak bezain abertzale zirela agertu.

Hasiera hasierako bertso berak ere hara zer dion:

*Adiarazo nai det
izketa klaroan
euskera ta fueroak
noiztik nola diran;
aspalditik nedukan
jarria buruan
Iputzen onerako
egingo ote nuan.*

Bertso horien egileak ez dakigu nor ziren. Baina Aita Uriartek 1859ko abenduaren 2lean Bonaparte-ri bidalietan Elgoibarko errementari zen Etxaniz deiturako batenak dira, eta hara zer dion zazpigarren bertsoan:

*Iru probintziako
Diputaziuak
orain artu dituzte
beren mediuak:
iru milla mutil da
gaiñera diruak
gerra orretarako
dirade ainduak.*

Liburu erdialdera arteko bertsoak aski berdintsuak dira. Propagandaren giroak eraginik, moroen kontra, Espainia eta kristautasuna eta gure probintzien etorkizunaren alde. Ordurako, Nafarroa bere "Ley Paccionada" (1841) zelako foru eskubideaz jabetu zen eta horregatik ziren hiru probintziak bakarrik.

Arestian esan dugun bezala, bertsoak gehienak ez dakigu norrenak diren, beste batzuk ordea, Altzoko Imaz, Zubiria, Elgoibarko Etxaniz, Durangoko Pantxillon zirelako izenak daramazkite; eta baita ere badira gizon eskolatuenak: Aita Uriarte, Eusebio Maria Azkue, Ibazeta markina eta abar.

Zizurkilgo mutil batenak dira bertsoak hunkigarrietakoak. Gerratik libratzeko, begia jota zuen hauzoko neska batekin ezkontzea nahi izan zuen, baina etxeoak errain diruduna nahi zuten eta ez zuten semearen andregai hori onartu. Eta horregatik kantatzen ditu bere bihotzeko nahigabeak:

*Morerira jua da
gerran biet asi,
enpleo txarrerako
ez ninduten azi.
Zer egingo det bada?
Il artian bizi!
Adios, aita ta ama
ta Mikela Inazi!*

*Adios, nere aita,
agur, nere ama,
eskergetasunak
soldadu narama;
adios bada, nere
biotzeko dama,
bizi banaiz bueltan
banator zugana.*



Hemen ere pobre zirenak txarrago agertu ziren, herriaren en-
gainagarri asmatutako gerra honetan. Gainera, zertarako genituen
lur haiek? Hainbeste odol ixuriaz hartutako lurrok, gero, bat
batean eta probetxurik gabe, hor utzi behar izan ditugu. Ez dut
uste mundu zibilizatuaren sinpatia handirik irabazi dugunik, So-
moza korrejidoreak gipuzkoarrei esan bezala.

Gainera, hara joan ziren soldaduetatik, balaz baino gehiago
hil ziren koleraz. Ongi etorria emateko asmatu ziren bertsoak hala
aitortzen dute:

*Mutill oietatikan
batzuek dira ill,
kolerak eta balak
die kalte egin.
Bizirik datozenak
ez dute izango min,
emen dira jarriko
sano eta berdin.*